



DONOSTIAKO MARATOI ERDIA

MEDIA MARATON SAN SEBASTIAN

GRAN PREMIO LABORAL KUTXA SARI NAGUSIA

2024KO ARAUTEGIA

1 > BATZORDE ANTOLATZAILEA

Streetmarketing Event Company produkzioarekin eta Apalategui Kirolak sustatuarekin S.R.D. Sport Magic-ek Donostiako Maratoi Erdiak antolatzen du.

2 > ORDUTEGIA

2024ko apirilaren 7an, Igandean Donostiako Maratoi Erdiko 23. urteurrena ospatuko da eta goizeko 10etan Donostiako Boulevard-rrean bi distantzien irteera izango da.

Irteerako metaketak saihesteko eta egoki berotzeko lasterketaren aurretik joatea gomendatzen da.

3 > DISTANTZIAK

Maratoi Erdiaren distantzia 21,097 km-koa da eta ibilbidea distantzia berdineko bi buelta izango dira irteera eta helmuga Donostiako Boulebarrean kokatuta egongo direlarik. 10K lasterketa 10,395 km-tako buelta bakarra izango da irteera eta helmuga Donostiako Boulebarrean kokaturik.

4 > PARTAIDETZAREN BALDINTZAK

21K MARATOI ERDIKO lasterketa edozein nazionalitatetako, federatu edo ez federatu, eta probako egun berean 18 urte bete dituztenentzako irekita dago.

10K-ko LASTERKETA edozein nazionalitatetako, federatu edo ez federatu, eta probako egun berean 16 urte bete dituztenentzako irekita dago. 16 eta 17 urtetako parte-hartzaileek, izen-ematea egiterakoan gurasoen baimena bete behar izango dute webgunean.

ROLLERS-EKIN, IRRISTAILUEKIN, GURPIL-AULKIEKIN, NORDIC WALKING-EKIN PARTE-HARTZEA, MASKOTEN AKONPAINAMENDUA ETA ATLETISMOKO BESTE DIZIPLINA DESBERDINAK DEBEKATUTA DAUDE.

Korrikalari bakoitzak bere ardurapean hartzen du parte lasterketan eta hau burutzeko gaitasun fisiko on bat duela aitortzen du. Antolakuntzak parte-hartzaile guztiei proba aurretik Osasun-Azterketa bat egitea gomendatzen die, parte-hartzaile guztiek kirol jardueragatik ondorioztatutako arriskuak onartuz. Halaber, atletak baldintza fisiko hobezinetan dagoela proba hau egiteko aitortzen du eta bere erantzukizunpean egiten du.

5 > IZEN EMATEA

Lasterketako inskripzioa pertsonala da eta arautegi honen onarpena suposatzen du. Parte-hartzaile guztiek araudi honetako artikulua bakoitza onartzen dute eta irteerako unean ez aurreratzeko konpromisoa zintzoki hartzen dute eta distantzia osoa osatu estaltzera helmugako marra gurutzatu baino lehen.

Izen-emate guztiak online egiten dira ekitaldiaren webgune ofizialean www.mediadonosti.com

IZENA ONLINE EMATEKO EPEA MARTXOAREN 31AN AMAITUKO DA.

Izena online emateko prezioa: 25 € Maratoi Erdia 21k eta 16 € 10k-ko Lasterketa.

Martxoaren 24tik aurrera egiten diren inskripzio guztiek ez dute izango dortsala pertsonalizatua, eta ezin izango dute inskripzioan aldaketarik egin.

Online izena emateko epea amaitu ondoren, eta leku libreak badaude, Apalategui San Sebastián kirol dendan apirilaren 5 eta 6an soilik egin ahal izango dira aurrez aurreko izen-emateak, 10: 00etatik 13: 30era eta 16: 00etatik 20: 00etara, Maratoi Erdia 30 € eta 10 k-ko lasterketa 20 € ordainduta.

Behin parte-hartzaileak izen-emate eginnez gero, Donostiako Erdi Maratoiko berrespeko posta elektróniko bat jasoko du IZEN-EMATEKO FROGAGIRI dokumentua erantsita.

Gainera, web ofizialaren IZEN-EMATEA EGIATZATU ataletik, egiaztatu ahal izango du eta bere izen-emate frogagiria beti deskargatu ere. GARAIZ ALDAKETAK ESKATU AHAL DITZATELA PARTE-HARTZAILEEK IZEN-EMATE-DATUAK ZUZENAK DIRELA EGIATZATZEA OSO GARRANTZITSUA DA.



LABORAL
kutxa



DONOSTIAKO MARATOI ERDIA

MEDIA MARATON SAN SEBASTIAN

GRAN PREMIO LABORAL KUTXA SARI NAGUSIA

2024KO ARAUTEGIA

IZENA EMATEKO DATUAAK ALDATZEKO EPEA MARTXOAREN 19AN AMAITUKO DA.

Datuak alda daitezke, inskripzioa beste pertsona bati eskualda dakioke, eta distantzia-aldaketa ere egin daiteke inskripzioa egin ondoren. Izen-ematearen aldaketa guztiak zuzenean egin daitezke ekitaldiaren webgunearen bidez. NANA eta izen-abizenak izan ezik; kasu horretan, mezu elektronikoko bat bidali ahal izango da aldaketa hori eskatzeko.

Inskripzioak ezin izango dira inola ere ezereztu edo itzuli. Inskripzioa formalizatu ondoren, ez da itzuliko lasterketaren inskripzioaren zenbatekoa, ezein arrazoiengatik, ezinbesteko kasu batek eragindako proba bertan behera uztea barne, kasu horietan kasuan kasuko agintariek ekitaldia bertan behera uztera behartzen badute bezala.

6 > DORTSALEN BILKETA

Online izena ematean, dortsala eta kamiseta jaso nahi diren ekitaldiari lotutako kirol-denda aukeratu behar da. Bilketa-egunak apirilaren 5 eta 6an izango dira, hautatutako dendaren beraren merkataritza-ordutegian. Jasotzeko NANA aurkeztu beharko da.

Parte-hartzaileak ezin badu bere dortsala pertsonalki jaso, beste pertsona batek jaso ahal izango du bere ordez, NAN/pasaportea parte-hartzailearen formatu digitalean edo fisikoan aurkeztuz. LASTERKETA EGUNEAN EZ DA DORTSALIK EMATEN.

KIROL DENDAK	DONOSTIA DEPORTES APALATEGUI	BILBAO INTERSPORT SAN MAMES	VITORIA RUNNING FIZ	PAMPLONA ZARIQUIEGUI	EIBAR INTERSPORT ASKASIBAR
	IRUN LEIRE SPORT	TOLOSA SHANTI KIROLAK	SANTANDER DEPORTES SAPPORO	LOGROÑO DEPORTES FERRER	ZUMARRAGA DEPORTES APALATEGUI

7 > LASTERKETA AMAITZEKO MUGA-DENBORA

2 ordu eta 30 minutuko gehienezko denbora ezartzen da Maratoi Erdiko eta 10k-ko Lasterketako ibilbidea betetzeko. Denbora horren ondoren, ibilbidea amaitu ez duten parte-hartzaileek ibilbidea utzi beharko dute. Lehen itzulian (km10,5) 1 ordu eta 30 minututik gora Meta arkutik igarotzen diren Maratoi Erdiko distantziako parte-hartzaile guztiak deskalifikatu eta ibilbidea utzi beharko dute.

8 > KRONOMETRAJEA

Kronometrajea parte-hartzaile guztiek jasoko duten dorsal-chip sistemaren bidez egingo da. Gailu txiki bat egongo da dortsalaren atzealdean, baina ez da inoiz bereizi behar dortsaletik. Lasterketa amaitutakoan ez da beharrezkoa dortsal-txipa itzultzea. Bularrean dortsala eraman ezean, ez da bermatzen probaren kronometrajea. Bi distantzietako dortsal-txipak desberdinak direnez, nahitaezkoa da hautatutako lasterketa errespetatzea. DERRIGORREZKOA DA TXIP DORTSALA NABARMEN ETA BULARREAN TOLESTU GABE JARTZEA. EZIN DA LASTERKETAN PARTE HARTU, EZTA LASTERKETAKO ZERBITZUETARA SARTU ERE, DORTSALA AGERIAN ERAMAN EZEAN.

9 > GARAIKURRAK





DONOSTIAKO MARATOI ERDIA

MEDIA MARATON SAN SEBASTIAN

GRAN PREMIO LABORAL KUTXA SARI NAGUSIA

2024KO ARAUTEGIA

Bi sexuetakoa denbora ofiziala duten lehen hiru sailkatuek jasoko dituzte garaikurrak, bi distantzien kategorian absolutuan.

Halaber, Maratoi Erdiko kategorian hauetako Denbora Ofizialarekin sailkatutako hiru onenek garaikurra jasoko dute: A beterranoak, 35 eta 44 urte bitartekoak B beterranoak, 45 eta 54 urte bitartekoak C beterranoak, 55 urte eta gehiago.

Sailkapena jaiotza-urtea kontuan hartuta egingo da. Gehienez 15 egun baliouduneko epea egongo da beren kategoriako hiru sailkatuek entrega-helbidea berresteko, dagokion garaikurraren irabazlearen jakinarazpena posta elektronikoz jaso ondoren. Trofeoak sailkatuaren etxera bidaliko dira lasterketaren ondoren, kanpoko mezularitzaren bidez.

10 > PARTEHARTZAILEARENTZAKO ZERBITZUAK

OPARIA. Lasterketan parte hartzen duten guztiek Running oroigarriko kamiseta tekniko bat jasoko dute, 21. ediziorako egindako diseinu berezi batekin.

FINISHER DOMINA: helmugara iristen diren bi distantzietako parte-hartzaile guztiei finisher domina emango zaie.

ERBIAK. Antolatzailuek 8 erbi izango dituzte Maratoi Erdirako, behar bezala identifikatuta, eta 1:20, 1:24, 1:30, 1:35, 1:40, 1:45, 1:50 eta 2:00 egiteko erritmo egokia inprimatuko dute.

HORNIDURAK. Parte hartzen duten atletek 5., 10. eta 15. kilometroetan (AQUABONA urarekin) eta Km-etan hornidura puntuak izango dituzte eskura. 7,5 eta 12,5 POWERADE.

DASTAKETA HELMUGAN. Lasterketa amaitzean, parte hartzen duten atletek banakako hornidura-poltsa bat izango dute, likido eta solidoekin, BM SUPERMERCADOSEK eta POWERADEK emandakoa.

KOMUNAK. Boulevardeko udaletxearen ondoan egungo dira.

ARROPAZAINDEGIA. Doako jantzitegi zerbitzua egongo da Aldundiaren Gipuzkoa Plazako eraikinaren etxabearen goizeko 8: 30etatik 13: 00ak arte.

ALDAGELAK. Gipuzkoa Plazan arropazaindegiaren ondoan karpak egongo dira, goizeko 8: 30etatik 13: 00ak arte korrikalariak arropaz aldatzeko aukera izan dezaten.

DUTXAK. Parte-hartzaileek aldagela dutxadun zerbitzua izango dute Pio Baroja eta Manteo Kiroldegietan, lasterketa amaitutakoan erabiltzeko.

PARTAIDETZA-DIPLOMA. Nahi duten guztiek doan jaitsi ahal izango dute parte hartu izana egiaztatzen duen diploma ekitaldiaren webgunean

11 > DESKALIFIKAZIOAK

DESKALIFIKATZEKO ARRAZOIA IZANGO DA:

- Inskripzioan datu faltsuak ematea.
- Ibilbide osoa ez egitea. Lehen itzulian Meta Arkua gainditu ondoren gelditzen ez diren 10 K-ko Lasterketako atletak kanporatu eta ibilbidetik kenduko dituzte antolakuntzako kideek.
- Ez igaro zirkuituan dauden pasabide-kontroletatik.
- Dortsala ondo agerian ez eramatea, edo haren publizitatea aldatzea edo ezkutetzea.
- Dortsala beste korrikalari baten jabetzakoa izatea.
- Epailen, Antolaketako langileen eta/edo Udaltzaingoaren jarraibideak ez betetzea. Korrikalari guztiek adi egon beharko dute antolakuntzako langileek eta/edo udaltzainek eman diezazkieketen jarraibideen aurrean. Horregatik, musikarekin korrika egin nahi izanez gero, entzungailu bakarria erabili ahal izango da.

12 > ASEGURUA ETA MEDIKU ZERBITZUA

Antolakuntzak, indarreko legeriaren arabera, erantzukizun zibilako poliza aseguru bat edukiko du. Gainera parte-hartzaile guztiak istripu-aseguru poliza batez estalita egongo dira. Antolakuntzak beharrezko zerbitzu medikoak edukiko ditu lasterkariez arduratzeko. Lasterketan zehar ezbeharren bat izan duten parte-hartzaileek 943310888



LABORAL
kutxa



DONOSTIAKO MARATOI ERDIA

MEDIA MARATON SAN SEBASTIAN

GRAN PREMIO LABORAL KUTXA SARI NAGUSIA

2024KO ARAUTEGIA

telefonora deitu beharko dute. Antolakuntza ez da arduratuko partaideek lasterketan zehar sortutako kalteetaz ezta hirugarren batzuei eragindakoez.

13 > IBILGAIUAK LASTERKETAN

Erabat debekatuta dago antolakuntzarenak ez diren bizikletak edo motorizatutako ibilgailuak erabiltzea. Bizikleta bidez, irristailuekin edota beste garraio-ibilgailuekin parte-hartzaileekin batera joatea ez dago baimenduta.

14 > SEGURTASUNA LASTERKETAN

Bide publikoaren segurtasuna Donostiako Udaltzaingoaren eta antolakuntzaren erantzunkizuna izango da. Zerbitzu medikuek baimena izango dute edozein korrikalari arrazoi medikuengatik kanporatzeko.

15 > DATUEN BABESA

Donostiako Maratoi Erdian izen-ematean, 2016ko aprobatutako lege RGPD-a Datu-Babeseko Araudi Orokorren arabera S.R.D. Sport Magic-eri eta Apolo74, S.L.-ri edo hirugarrenengo entitateei, datu pertsonalak automatikoki eta kiroltasun, promozional eta komertzial moduan erabiltzeko helburu bakarrarekin onartzen dute. Halaber, Donostiako Erdi Maratoiaren kirol, promozio, distribuzio eta ustiapen interesen arabera (lasterketaren argazkien erreproduzioak, sailkapen zerrenden argitarapenak, eta abar), mundu osotik, denbora mugarik gabe eta edozein moduz (Internet, publizitatea...), partaideek haien izen-abizenak, sailkapen orokorrean eta pertsonalki egindako postua, kategoria, lortutako kirol marka eta bere irudia argitaratzeko eskubidea ematen diote antolakuntzari. Datu Pertsonalak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan azaltzen den arabera, partehartzaileak fitxategi hauek eskuratzeko eskubidea izango du bere edukia guztiz edo alde bat zuzentzeko edo ezabatuzeko. Hau egiteko, S.R.D. Sportmagic-eko helbide sozialara (Aingeru Zaindaria, 15A - 20.018 Donostia) idatziz eskatu beharko da.



LABORAL
kutxa